



EBAZPENA, 2022ko martxoaren 31koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Maisu-maistren kidegoko funtzionarioen arteko 2021/2022ko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroak 5eko aginduak (2021eko azaroaren 12koa EHAA), Maisu-maistren Kidegoko funtzionario irakasleen artean 2021-2022ko lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Maisu-Maistren kidegoko langile funtzionarioen arteko 2021/2022ko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2022ko apirilak 4tik 8ra, bi egun horiek barne.

Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 31ean